



Rose Dieng-Kuntz

1956-2008

**Ezagutza,
denontzat eskura**

Zer
zor diogu?

Egun ezagutzen dugun internet sarea ez litzateke berbera izango bere ekarpenik gabe. Gainera, ezagutzaren transmisioa ezezik, bere pasioarena ere partekatzen zuen gazteekin, batez ere neskekin, era honetara genero ezberdintasunak ezabatuz eta zientzia parekide baten alde lan eginez.

Biografia

Lehen urteak Afrikan

Rose Dieng-Kuntz Senegalen jaio zen 1956.urtean, zazpi neba-arreben sendi oso pobre batean. Bere aita Henri Dieng-ek hainbat balore sustatu zituen beragan; hala nola, **lanarekiko konpromezua, esfortzua balioa**, leialtasuna eta zintzotasuna, Rose beraren esanetan.

1976an Dakar hiriko École Polytechnique-an onartu zuten lehen emakumea bilakatu zen. Han Telekomunikazioko Ingeniaritzako diploma eskuratu zuen.

Zientziari jarraiki... Europara

Bere ikasketekin jarraitzeko Frantziara mugitu zen Rose, Parisera zehazki. Bertan, Université Paris-Sud unibertsitatean, informatikan doktoratu zen eta handik gutxira Digital Equipment Corporation (DEC) enpresan hasi zen lanean, **Adimen Artifizialaren esparruan**.

Bidelagunak

DEC-en ezagututako Pierre Harenekin batera ikerketa-talde bat osatu zuen Institut National de Recherche en Informatique et en Automatique (INRIA)-n. Gauzak horrela, 1985ean DEC utzi eta INRIAn sartu zen buru-belarri, Pierre buru zuen SMECI proiektuaren baitan adimen artifizialaren inguruko ikerketan lanean. Proiektu honen helburua honakoa zen: tresna edo erreminta generiko bat sortzea, gerora **hainbat aplikazioen oinarri** izango zena. Rosen lana "azalpena" zen: sistema gai izan behar zen erabiltzaileei bere funtzionamendua azaltzeko.

Rosen ardura nagusia, **ezagutzaren transmisioarena** zen. Horregatik esan zuen: "gehien motibatzen nauena ezagutza partekatzea da: horregatik etorri nintzen Frantziara, senegaldar guztien on-izatea helburu".

Helburuak zehaztuz

1988an Rosen lankide Pierre Harenek INRIA utzi zuen bere enpresa sortzeko, baina Rosek ikerketan jarraitzea erabaki zuen eta SMECI proiektuak izena aldatu zuen, SECOIA izena hartuz. Proiektuaren

gidaritza gizonezko batek (*Bertrand Neveu*) hartu zuen berriro ere. Garai hartan Roseri datuak eskuratzeko sistemai buruzko interesa piztu zitzaion, eta handik aurrera gai hari heldu zion bere ikerketa lanetan.

ACACIA edo memoria partekatzea

Ildo horri jarraituz, 1992 urtetik 2006ra bitarte, Rosek ACACIA proiektuaren **lidergoa** hartu zuen. Era honetara, INRIAn talde bat gidatzen zuen bigarren emakumea izan zen. ACACIA proiektuaren jomuga ondorengoa zen: sistema ezberdinetatik ezagutzak hartuz, enpresa eta instituzio ezberdinei atak irekitzea metodo eta erremintetara; beste era batera esanez, beste sistemen memoria eta jakinduria baliatzea erakunde zein pertsonen momentuan behar zituzten erantzunak emateko. Informazio iturriak eskuragarri egitea, funtsean.

Rosek hala zion: "**memoria ezinbestekoa da pertsonen, komunitateen eta nazioen bizitzan; memoria faltak deuseztatu egiten gaitu**".

Lorpenak eta borroak

2005 urtean Irène Joliot-Curie saria eman zioten bere ibilbidean zehar zientziari egindako ekarpenengatik.

2007 ondotik Edelweiss (*Exchanges, Documents, Extraction, Languages, Web, Ergonomics, Interactions, Semantics, Servers*) proiektuaren arduradun izan zen INRIAn.

Bederatzi liburu eta ehundik gora artikulu idatzi zituen hainbat gaien inguruan, hala nola: adimen artifiziala, ezagutzaren kudeaketa, ontologia, web semantikoa, etabar. **Bere lan esparruan benetako pasioa** zuen zientzialaria izan zen Rose, zinez.

Horrez gain, komunitate zientifikoko ezagutza partekatzearen eta zientzian emakumeen presentzia areagotzearen alde lan egin zuen sutuki, 2008 urtean zendu zen arte.



“
Etorkizunari
begira
gizabanakoak,
erakundeak,
herrialdeak
eta
kontinenteak
lotzen dituen
web batekin
amesten dut
[...] informazio
gizartetik
ezagutzaren
gizartera [...]”
Rose Dieng-Kuntz